

I. Iparragirre eta Euskal Herria

Europako kultur mugimenduak euskal literaturan izan duen influentzia eta horiek nolabait mugatuz agertu nituen zenbait saio Literaturaren inguruan (1980) deritzan liburuan. Bertako hirugarren atalean Iztueta jartzen nuen erromantiko-en artean aintzindari, Etxahun zaharra, Txaho, Paulo Astarloa eta beste ukatu gabe. Ikus liburua-ren 68-83. orrialdeetan. Baina erromantikoen gailurrean inor jarri behar banu, hor izango luke bere toki berezia Jose Maria Iparragirrek.

Europan, XVIII. mendearen azkenalditik hasi zen Erromantikoen garaia. Pentsa molde klasiko motel haiek hausteaz eta idealismora joaz. Aldi berean, baita ere subjektibitateetara. Orduan, sentipen eta gogozko ideiak indartu ziren.

Mugimendu horrek gizarteko azpimailetarainoko eragina izango zuen, herria, populua, bultzatu zuen beraien nortasunaren alde. Horren ondoriozko eraginez, oroi Austro-hungriar inperioa erori zela eta bazter guzietan naziotasunak piztu.

Gauzak ez dira bat batean sortzen, jakina. Mugimendu bakoitzak baditu bere aintzindariak, beste herrietan bezala gurean ere, gizon bakoitzak badakar bere mezua, ideak metatuz, goraka indartuz heldutasunera arte. Honegatik, erromantikoen gailurrean, Iparragirre izan zen gure literaturan lehen aldiz Euskal Herri izena zentzu politikoaz hartuko zuena. Horrek ez du ukatzen Euskal Herri hitzaren lehenagotiko erabilera, euskara hedatua zen geografi esparrurako. Axularrek berak Gero (1643) liburua-ren sarreran, gomendiozko kartan eta irakurtzaileari direlako idazkietan garbi asko zekarren Euskal Herri hitza.

Baina politika zentzuan ere, adibidez, Larramendik (1690-1766) inoiz holako ideak erabili zituen, baina hein batean bere abertzaletasuna Gipuzkoan soilki mugatzen zuen, probintzia den gainetik gorai patuz. Oihenarte (1592-1667) eta Larramendi izan ziren lehen folklore zatien biltzaile. Kantabria eta Euskaldunak ere erabiliko zituen Larramendik, Pirineo mendebaldeko herrien liga edo federakuntza gisako elkartasuna ere proposatu zuen, probintzia mitifikatuz. Azkoitiko zalduntxoek ordea, beti haruntzago

joanaz, Irurak Bat goretzi zuten. Txaho (1811-1858) berak ere, bere abertzaletasun guziz, Euskaldunak (Los Vascos), Euskaros (Vascones) gorai patzen zuen, baina behar bada Pays lehenengoetarik erabiliko zuen, euskaldunen eskualdeak aipatzean.

Larramendiren eraginetik nonbait, Iztueta (1767-1845) Gipuzkoa-zaletasunez, Probintziaren alde jardun zen, "Viva Probintzia!" aldarrikatuz, oraingo Gora Euskadi ! bezalaxe; bere lanetan inoiz ez zuen erabiltzen Euskal Herri. Euskara goratu eta ederretsiz, baina Euskal Herriaren kontzeptu orokorra falta zitzaion. Gipuzkoaz, gainerako euskaldunak hizkuntzazko anaitzat zituen, baina erakunde politiko desberdinetakotzat. *Gernikako arbola* eta Hiribarrenen Eskaldunac (1853) poema, urte berekoak dira, eta horietan agertzen da lehen aldiz Euskal Herri izenaren erabilkera hau, ideen garapenean lorturik doa eta gauzok kontutan hartu behar genituzke historian zehar euskaldunon jokabideak ezagutzeko. Gaur egungo gure itsutasun asko ezjakintasunaren ondorioak dira. Eta aurrerantzean gauzonik egingo badugu, lehenari ere begiratu beharrean gara. Atzeak erakusten bai du aurrea nola dantzatu.

Esan bezala, Jose Maria Iparragirre (1820-1881) urretxuarra izango zen Euskal Herria aberri gisa bere kantetan lehen aldiz erabiliko zuena. Kanta hoietako baten titulua bera ere hala du, *Agur, Euskalerrinari*. Beraz, lehenbizikoz agertzen zaigu euskal literaturan gure herriaren zentzu orokorra, probintzien eta eskualdeen gainetik. Bestalde, 1878an Nafarroako Asociación Euskara zeritzan elkarteari bere kanta eskaini ere bai; hala erabiliko zuen hirugarren bertso hartan. Garai hartan behintzat, Iparragirrentzat, Nafarroa Euskal Herria zen ala ez, ez zen zalantzan jartzeko gauza.

Idea aurreratuak ziren denbora hartarako. Zalantzarik gabe, erromandiko mugimenduaren eragina zen. Ideia aurreratua diot, zeren kontutan izan behar dugu, urte asko geroago, Sabino Aranak lehen abertzale alderdia sortzean "Bizkaitarra" izango zela, gero Euskal Herri guzirik zabalduko zuena. Baina, lehenengoz, bere ideiak ez zituen hain argi eta hasierako lanak Bizkaiaren alde soilik izan ziren.

Arestian esan bezala, Iparragirregan maiz aurkituko dugu Euskalerrri hitza, euskaldun herria orokorki begiratzean. Bere hobirako hautatu zen iragarriak zeritzan bezala, Ameriketatik Urretxuarrei eskainitako bertsoetan oinarriturik, horrez gainera, hor dira lekuko Becerro Bengoa, Arrese, Herran eta Manteli-ri eskainitako poesietan eta beste zenbaiten. Honegatik, ez bakarrik Euskalerrri izena hartu, baizik maizenik erabili ere bai. Bidenabar esan dezadan hitzak eta izenak zer nolako garrantzia duten hauek ideeri loturik doazenean. Garaiko usteak, kezak, ideak, kontzeptuak eta abar aztertzean, premiazkoa zaigu zer nola erabili zuten jakitea. Honegatik hain zuzen, ez zait ongi iruditzen "Nere etorrera" deritzan kanta hartan "Ara, España..." zioenaren ordez, "Ara, Euskalerrri" jartzerik; bertso neurri puskatzez gainera, gezurra sartzea delako. Hobe beti gauzak diren moduan. Guri tokatzen zaigu errespetatzea, ezen gure ondokoek eskubide osoa dute lehengoena den bezala jasotzeko. Horrela, kanta berean ikus dezakegu, Hendaiatik begiratzen zuena, guk nahi edo ez nahi, beste Estadia batekoa zela, mugaz bestalde zegoela, eta, era berean, Estadu hori ukatu gabe, bere hirugarren bertsoan aitortuko zigunez, "Oh, Euskalerrri eder maitea" azalduko zigula. Beraz, zergatik ez errespetatu egileak berak jarri zuen bezala?.

Hara hemen beste adibide bat. Cuti batzuren aldetik inoiz zalantzan jarria izan dena, *Gernikako arbola*-ren doinua Iparragirrerena den ala ez. Nire ustez, gainerako doinuak kontutan harturik, argi ikus daiteke Iparragirrek antzerakoak ez ezik doinu hobek ere badituela. Bestalde, letraren aldetik ez dago zalantzarik, kanta horren bosgarren bertsoan, argi eta garbi agertzen zaigu Euskalerrri, garai hartan gure literaturan beste inork ez bezala, eta horrek ere Iparragirre erakusten du kantaren egiletzat:

Arbola botatzia
Dutela pentsatu
Euskalerrri guzian
Denok badakigu.

1853. urtea zen, Hiribarrenen Eskaldunac poema liburua argitaratu zen urte bera, erromantiko mugimenduaren eraginez euskaldunon batasunaren aldeko ideia, eta bere zabalkunde kartsua Iparragirrerri zor diogu.

II. Iparragirre erromantikoa

Gure Iparragirre ez zen bat batean kasualitatez sortu zen gizona, ordurako erromantiko mugimenduaren gurgpilean sarturik zeuden euskal literaturako gizon batzuk: Hiribarren, Txaho, Etxahun, Iztueta, Bilintx eta abar. Baina, Iparragirre, gaztetxo zela lehen karlista gerratean partaide izan zen eta orduko eraginetik zetorkion hasiera.

Dakigunez, Cadizko Konstituzioa (1812) guziek onartua izan zen, baina "Trienio Liberal" zeritzan 1820tik 1823ra bitarteko agintari haiek Euskal Herriari historiaz zegoekin Foruak ukatzeak ekarri zuen etena eta aldaketa. Orduan, erregetzaren oinordekotza hartu nahi zuen Don Carlos sartu zen auzian, besteek ukatu zituzten foruak berak eskainiz eta hortik karlista taldearen sorkuntza. Ondorenez gerra zibila ekarriko zuena. Iparragirre gaztetxo, etxetik ihesi karlisten alde borrokatzera joan zen. Gero, Bergarako konponketa egin zutenean, bertan erabakitakoaren aurka agertu zen eta etsipendurik hartu zuzen herbesterako bidea. Atzerrian bizimodua nolabait atera beharrez, Frantzia Carolina Duprez zeritzan emakume batekin ibili zen antzerki eta kanta ikasketetan.

Ondorean, herriz-herri gitarra zartxo bat lagun harturik buhame gisa. Herriz herrizko ibilera haietan ohartu zen nonbait karlista gerrateak Euskal Herriari ekarri zion hondamendiaz eta iritziak berrituz kantatu zuen *Jaungoikoa eta arbola*, bere hirugarren bertsoan honako hau agertuz:

Zuaz, D. Carlos zazpigarrena,
Urrun bai gure lurretik;
Ez dezu utzi guretzat pena
Eta tristura besterik:
Lutoz negarrez ama gaixoak
Ai! ezin konsolaturik;
Ez degu nai ez geiago ikusi
Zori gaiztoko gerrarik.

Bere bizitzari buruz asko idatzi izan da. Neronek ere biografia labur bat agertu nuen Gogoz (1978) liburuaren 247-256 orrialdeetan, eta ez zait ongi iruditzen orain gauza bera berriz esaterik. Horregatik, gaurkoan, erromantikoen arteko literaturan toki berezi bat emanaz zerbait luzeago kontatu nahi nuke, bere poesiari buruzko zertzelada batzuk ondorenerako utziaz.

Herbesteetatik herriminak itzularazi zuten eta itzultzeaz bat, 1853an, Madrilen, Montera kaleko San Luis kafetegian “Gernikako arbola” kantatu zuten eta gero Euskal Herrian zehar, Orduan hartu zuten fama geroztik ez zen itzaliko.

Libertatearen sinbolo egingo zuten Gernikako arbola. Ez Euskal Herrikoa bakarrik, baizik mundu guziko herriena. Iparragirreraren ekimen horren ondorioz, oroi zer zioen Joaquín Costa aragoiar federalista harek: “Una prudente y progresiva descentralización hubiera bastado en aquellos años de paz corridos desde 1875. En las afflictivas circunstancias presentes, el remedio tiene que ser radical y de resultados más eficaces: hay que trasplantar el árbol de Guernica a todas las comarcas de la península”. Ez dago zalantzarik ideia berriak sortarazi zituela.

Lehen lehenago, Axularrengandik Etxahunera erabilia zen Euskal Herriaren izena eta nortasuna zabaltzeko, baina ez Iparragirrek agertu zuten zentzu politikoz. Mugen gainetik, Euskal Herriak, euskaraz mintzatzen zirenez gainera anakide elkarte bateratuaren mezua oihukatzen zuten Iparragirrek, batasunezko nortasun berezi batekin. Baina aldi berean, ez zuten ukatzen gainerako herriekin beharrezko zitzaigun harremanik. Idea aldetik, gaur egungo Europa bateratuari aurrea hartu zion. Bere bertso batean oso ongi zioenez, hau zen beretzat nazioen liga edo aleantza:

Gerturatzen da eguna
nazioen liga edo aleantza
da, ikusiko deguna.

Bertso hau, ohar bat egin beharrezkoa iruditzen zait: Hasiara honetara adierazi nahi zuten, “Gertatzen ari da”, baina kantatu ahal izateko, bertsoaren neurri gora-beherak hortaratu zuten.

Bere sentipenak hain sakon eta kementsu agertzeko eran argi nabari da erromantikotasuna, eta jaso dudan poesi atal horren ingurua bera, lehenagoko naturazko arkadiaren ametsa. Garai haretan obi zenez, Iberia barne dela goresten du. Bestalde, Euskal Herriak ez ezik euskarak berak ere tratamendu berezia du Iparragirreraren poesian. Aizkibeli eskainitakoez aparte, “Arren, ez bedi galdu euskera” deritzanean, zeren hizkuntzari buruzkoan garbi agertu bai zuten, “Galtzen badegu galduak gera”.

Etsi gabe jardun zen foruen aldeko borrokan. Euskal Herriaren interesgarri zitzaionaren alde; baina hala ere ez zuten azaltzen Espainiaganako gorrotorik eta bai bakearen alde dehiadar. Iparragirreraren ondokoek ezagutu zuten bere eragina. Baina literaturan beste ekintzarik ere izan zen euskararen aldeko joera zuzpertzten. Erromantikoen hasieran W. von Humboldt izan zen bezala, mugimenduaren heldutasunean L. L. Bonaparte Printzeraren lanak eta maila hortako itzala zuten gizonak gure hizkuntzaz arduratzeak berak eman zigun ospe eta ohorea. Gero, Antoine D’Abbadie eta Klaudio Otaegi ahalegindu ziren Bonaparte Printzea Euskal Herrira ekartzen.

Hala ere, olerkigintzaren alorretan ez zen gehiegi sartu L. L. Bonaparte printzea; baina, horretan bai Iparragirrek ideki zuela bide berria. Bere ondotik Grazian Adema “Zaldubi” kalonjeak (1828-1907) hots egin zuten: “Zazpi Euskal Herriak bat egin dezagun, guziek beti-beti gauden gu euskaldun”, haritz ederraren sinboloa altxatuz.

K. Otaegi bera, Eusebio M. Azkue, Elizanburu, Bilintx, Dibarrart eta bestek hartu zuten urretxarraren zenbait kutsu edo joera. Izan ere, erromantikoen giroa sendotu zuten Jose Manterolak *Cancionero vasco* (1877-1880) bilduma sailarekin eta jarraipenez 1880an Euskal Erria aldizkaria sortzeaz.

Gaur ere bere oihua berbiztu beharra ez ote dugu? Batasuna, anaitasuna, euskara eta bakearen inguruan? Orduan zioenaren premaia berbera ez ote orain ere?:

Egia, emen ere
joan dan aspaldian
gauza onik ez degu
Euskal-errian;
oraindaino bezala
bagabiltza auzian,
emen biziko gera
beti miserian.

Bakoitzak har bedi bere barne gogoetarako.

Menéndez y Pelayo-k, inoiz euskaldunon alde-rako gogo onik agertu ez zuenak, “honrada poesia vascongada” esan omen zuten Samaniego eta Trueba oroitzuz, eta esaldi hori ahotan hartuz

agertu zuen Unamunok Bilbon: “que era menester deshonrar a nuestra poesía y a nuestra literatura” (ikus M. de Unamuno, *Obras completas*, V. liburukiaren 554. orrialdea). Batez ere Antonio de Truebaren poesien aurka, gure baserritarkeriak eta “bizkaitarkeriak” salatuz, 1907 eta 1908. urtekoa zen ateraldi hori. Ideien funtsean ez zuen ezer berririk argitzen. Rakuk Bilbora jiu-jitsu ekarri zuen garaia zen eta gure Unamuno liberala aztoraturik zebilen loratzera etor zitekeen abertsaletasunak itsumustuan etkezuloratuko ginduzten beldur. Raku ere aitzaki hutsa zitzaion kritika egiteko eta kritika horietan neurritz harat joaten zen inolako bereizketarik gabe. Oroi Menéndez y Pelayok “honrada poesía vascongada” eta Unamunok “que era menester deshonrarla” esaten zutenean, hemengoek gaztelera idatzitakoaz ari zirela.

Baina testuak zuzen irakurri gabe ahoberoaik bolo-bolo zabalduarekin besterik gertatu zen. Uste oker horrek askorengan gure egunokarte irau du, Unamunok esana euskal poesiagatik zelakoan. Horrela, ez da harritzekoa Amado Nervo bezalako poetak ere uste hori agertzea, honako iritzi hau azaltzean: “¡Abajo la coitadez!” eta “El jiu-jitsu en Bilbao” gaztelaren alde agertu ziren Euskal Herriko semeak goreseteko, baina denak ez ziren idazleak. Unamunok argitu ez zuena, zera zen, Gaztelaren alde ala Gaztelako erregeren alde. Eta, Foruak ez ote zeuden bitarte? Aipatzen zituen pertsonaia haien garaian bai noski. Baina hor ere ez zuen jakin bereizkuntza egokirik egiten. Itsutasuna jabe. Okerrena, zera da, ospetsu bategandik datorrena, berez indartzen dela. Ondorioz, Amado Nervo haruntzago joan zen, San Frantzisko Jabierrek ere gaztelera idatzi zuela esatean. Guk, gutiago dakigunok, euskaraz zekien edo ez zalantzan jartzen badugu ere, gauza ziurtzat daukagu San Frantzisko Jabierkoak gaztelera inoiz ez zuela idatzi, bai ordea portugesez, eta zer esanik ere ez latinez zein frantsesez ondo zekiela. Ondorioak urrutiago joan ziren Hego-Amerikan zehar, Jorge Luis Borges berak ere muturra sartzeraino, euskaldunok esne saltzaileak baizik ez ditugula eman. “Zuzen” (Justo) Garate arrazoi zuzenez aritu bazen ere, Nobel Saria falta zitzaion errazoiz epaitzen zuena idartzeko.

Unamunoren hodeietatik libratzen den idazlea, Iparragirre da. Eta arestian agertu dudana gizia kontutan hartzen baldin badugu, ez da

guti gure urretxuarraren alde. Unamunok gaztarroan Alcalá de Henares-tik Bilbora Juan José Lekandari Gaztela eta Bizkaiaren konparaketazko gogoetaz idazten zioenean, une berean, gure idazleen balioa ez ezik, beraien maila mugatua ere aipatzen zioen. Egia esan, artean Unamuno bizkaizaletasunagoz agertzen zen, edo sentitzen zen.

Hara hemen 1889ko azaroaren 18ko *El Noticiero Bilbaino*-ren literatura orriaren agertutako aburua: “La rudeza tosca de Iparraguirre, la ligera gracia de Vilinch, el donaire del platero de Durango, gustarán siempre más que esas soporíferas leyendas, muy buenas, sin duda, muy bien hechas, pero que no cuadran a nuestro carácter”. Tira, zerbaitxo da. Erromantiko garaiaren bukaera aldean idazle ospetsu agertu zen Pierre Loti frantsesa ez zen nornahi, munduan zehar hainbeste ibili egin ondorean Hendaiaiko “Bakar-etxea” hartu zuen kokalekutzat, eta bere azken urteak bertan igaro zituen. Gure herriaz zaletu zen, baina baita ere Iparragirreraren kantuz. Ramuntcho eleberri aipatua burutzeko hainbeste gertakariaren berriemaile izuen Otharre azkaindar pilotariarekin herri-herri zaldiz ibiltzea gogoko zuen eta bere *L’Pays Basque* liburuan dienez, han-hemenka sagardotegietan maiz gelditzen omen zen, non gogoz entzuten zituen Iparragirreraren kantak. Gainera, bere *Reflets sur la sombre route* zeritzan liburuaren kapitulu bati izenburutzat “Adieux au Pays Basque” jarri zion, Iparragirreraren *Adio Euskalerrira!* ren oroiz. Baina ez hori bakarrik, 1892ko urriaren 25ean Loiola bisitatzeko trenez Zumarragara joan zenean, Urretxura jo zuen, Iparragirreraren monumentoa bere begiz ikusteko. Irudiaren aurrean oroitzen ditu Iparragirreraren ibilerak eta atsegin zitzaizkion kanta aberkoiak, aldi berean goresmenak agertuz. Bertan iragarriko dagoena antzinako euskal hizkuntzaz dagoela zioen, atzerritarrek inoiz menderatuko ez dutena dela. Baina, hortaz ere zer pentsa bururatu zitzaion, han bertan eraman zuen uste gabearen eraginez, non gertakari polit bat aipatzen zuen, Brasildik ekarritako papagayo lorito motako bat balkoi batean euskaraz mintzatuz entzun zueneko.

III. Iparragirreraren kantak

Ba ote da euskaldunik Iparragirreraren zerbait kantatu ez duenik? Ez dut uste. Gainera, gure gizon

hori, neurri handi batean, orain hain modan den egile-kantari (cantautor) horietakoen guraso zen.

Oroigarri zaigu munduko mailarik handienetara iritsi zen Julian Gayarre erronkariar kantariak Iparragirrearen zortzikoak maite zituela jakitea eta zenbait opera kantatu ondotik, aretoko giroaren arabera. *Gernikako arbola* kantatzea gogoko zitzaiola, berdin zein Barcelonan, Madrilen edo Bilbon. Erronkariar tenorra hil zenetik urtebetegarrenera Julio Enciso bilbotarrak idatzio zuen *Memorias de Julián Gayarre* (1891) liburuaren 266, 294 eta 326. orrialdeetan eskaintzen zizkigun berri horren lekukoak. Eta oraintsuago, baita ere F. Hernández Girbal idazleak Julián Gayarre. El tenor de la voz de Angel (1970) liburuaren 186 eta 413. orrialdeetan.

Iparragirrearen kantetan, era askoetarikoak dira, bere herriaren zaletasunezkoak, herri ororen astakasun deihadarrezkoak, buhame ibilerazkoak, amoriozkoak, ardo-kantak, euskaltzaletasunezkoak eta abar.

Bere poesiagintza, gehienbat ohizko bertsolaritza eskolakoa da erromantiko bati dagokionez. Jakina, ez zen bertsolari petoa eta bere bertsoak Xenpelarri hain egokiak ezbazertzaizkionarren, ezin esan kalekume bertsolaria ez zenik; Xenpelar errenderiarrak desafio famatu haretan aitortuko zuen bezala: “Eskola ona eta musika, / bertsolaria gainera...”. Bere funtsean bertsolari era zuen, bertsoagintza maiz trakets xamarra zuenarren. Poeteri maiz nabari zaien hutsa noski. Bere kantetan gora-behera handiak nabari dira. Puntu aberatsik guti erabili zuen eta puntu batetik bestera neurtzean doinua ondo eroateko ohi den eteneua bera ere beti ez zuen errespetatzen. Hala ere, horiek gaitzerdi ziren. Ahots oneko gizona zen eta bertsoak musikaz ondo hornitzen zekiena.

Sorketan, bizienak zortziko txikian egindakoek dira, aldi berean hor du bertsolari taxurarik gehien ere. Horiek nonbait, erabileraz eta herriaren aurrean gehien kantatzen zituela, hobetuak zituen, noski.

Horietakoa dugu bere buhame bizitza eta beti bihotzean zeraman herrimina hain ongi adierazten duten, “kantari euskalduna” ren lau bertso haiek. Hara hemen lehenengo biak”:

Gitarra zartxo bat da
neretzat laguna;
onela ibiltzen da
artista euskalduna;
egun batean pobre
beste batez jauna,
kantari pasatzen dut
nik beti eguna.

Naiz dala Italia,
orobat Frantzia,
bietan bilatu dut
anitz malizia.
Ikusten badut ere
nik mundu guziaz,
beti maitatuko dut
Euskal Erria.

Bi bertso hauek erakusten digute gizonaren irudia. Eraz eta esaldiz antzarekoa dugu Ameriketara irtetzean kantatu zuena ere.

Azken bertsoaren esaldiak, “Gazte gaztetatikan herritik kanpora...” haseraz duen horren bukaerakoa, adibidez:

Agur nere biotzeko
amatxo maitea!
Laster etorriko naiz
kontsola zaitea.
Jaungoikoak nai badu
ni urez joatea;
ama, zertarako da
negar egitea?

Baina, gitarra zartxo zebilen honen gogoan zegoen gure lur maite hontan hezurak uztea. Hala gertatu ere 1881. urtean.

Esan beharrik ez da ospe handia eman zioten kantak abertzaletasunez beterikoak direla. Baina beste gai batzutan ere badu pitxi gogoangarririk. Hauen artean, amoriozkoak.

Garai hartan emakume azal zuriak maitagarriago ziren nonbait. Modaren kontuak. Baina, Iparragirreentzat beltzaranak ere maitagarriak ziren. Hala aitortzen dute “Beltzarana” izenburutzat duten bertso politak.

Amoriozkoetan aipatuena, Nere *maitearentzat* jarri zituenak dira, “Ume der bat ikusi nuen / Donostiako kalean...” hasten direnak. Doinua bera ere oso polita jarri zion eta Euskal Herriko kantari taldeek hamaika aldiz erabili dute. Nor ote zen kanta sortzeko etorria eman zion ume eder hori? Ezta erraz jakitekoa.

Iparragirrek kortejatzaile onaren fama zera-man eta bat baino gehiagokin izan zituen amoriozko harreman onak. Hala ere, abaraskara hurbiltzean, erlauntza guzia ez zen ezti, eta sufrikariorik ere izan zuen nonbait, *Zugana Manuela* direlako bertsoetan ageri denez.

Amorioz beterik
esperantza gabe,
zergatik egin ziñan
biotz onen jabe?

Manuela hori ote zen *Ume eder bat*? Fernando Artola “Bordari” adiskide zenagandik jakin nuen, kanta hortako emakumea, Manuela Franziska Zubiaurre omen zen, 79 urte beteta Tolosan 1916an hil zena. *Nere izarra* deritzana gutiago ezagutzen da. Gainera, itxura denez luzeagoa izan zitekean, zeren bukaeraz duen hirugarren bertsoak jarraipena eskatzen duela esango nuke. Lehen bertsoan osatzen duen irudi ederrari nekez dagokio holako amaiera.

Ezkongaietan delakoa ordea, berea ote den, zalantza jarriko nuke. Beste estilo bat du. Bertsolari moldez hobeto egina da, bertso biribila-goak ditu; baina, bestalde, Iparragirre emakumezale borrokatua zen eta, holako izateari dagokionez, emakumezkoak gorensten ditu, biziki maitatzen ditu, lirioz beteriko hitz eztiminduak eskainiz. Hala dira bere amoriozko kanta guziak, hauxe ez ezik. Hemen, ezkontzearen damuz, emakumezkoak mespresatzen dira eta hori nekez zettorren Jose Mariaren izatez. Baina, ezin nezake ziurtatu, zeren zirisartzezko sarkasmoa ere gogozko zitzaion eta, hala izanik, broma pasa egina dirudi.

Esan bezala, era askotarikoak dira Iparragirrereren kantak, aberkoiak, buhame ibilerazkoak, amoriozkoak eta abar. Ardo kantetan aski zabalduak daude gure egunok arte herriak kantatu duen “Glu, glu, glu...”. Kronika aldetik ere badu baliagarrik, besteak beste, *Euskalerrria eta Amerika*

deritzana. Seme leial batek bezala kantatu zuen bere Urretxu sorterriaren alde. Baina euskaltzale mailan ere bada bertso ederrik.

Euskara maite zuen eta hizkuntza honen alde ari zirenak gorai patzen zituen. Hara nola Aizkibeli eskainitako *Biba Euskara!* deritzan bertsoetan adierazten duena:

Pakean bizitzeko
gure mendietan,
euskera itz egin bear da
batzarre danetan;
ta euskaldunen izena
geroko eunkietan
famatua izango da
alde guztietan.

Zoritxarrez, mende bat geroago, abertzaleen batzarrik gehienetan ere erdaraz mintzo dira. Ibon Sarasolak ongi zioen bezala, euskaldunok, gauzarik garrantzitsuena gerorako uzten bai dugu. Gero ordea, ez dakit milagro salbatzeko esperantza edo duten; baina, gaur egun, nork sinesten du holako milagrorik? Mirakulurik baldin bada, hori gure ekintzaren baitan dago, euskaldunei euskaraz mintzatuz. Zein aspaldikoa den Iparragirrereren “Arren, ez bedi galdu euskara” deritzan bertso saila, hizkuntzaren euskarri. Ohartu zen gure urretxuarra hizkuntza gabe ez genuela nortasunik, “galtzen badegu... galduak gara, kartsuki azaltzean.

Gaztetxo ibili zen lehen karlisten gerratean. Bergarako komenioaz ez zettorren ados eta bere kabuz atzerriratu zen. Frantzia hasi zen kantari eta Marsellesa kantatuz herriak asaldatzen zituelako desterratua izan zen. Italia, Suitza, Alemania eta Ingalaterran ibili zen buhame gisa kantari. 1853an *Gernikako arbola*, orain hain ezaguna eta hain hedatua duguna:

Gernikako arbola
da bedeinkatua,
euskaldunon artean
gutziz maitatua.
Eman da zabal zazu
munduan frutua,
adoratzen zaitugu
arbola santua.

Geroztik esan daitake euskaldunon kanta aberkoi nagusia dela. Gainera, politika talderik gehienekoez onartzen dutenez, anaitasunera biltzen gaitu.

Geroago anitz eztabaitatua izan da, beste norbaitek egina den baina Iparragirrek bere ahoz kantatua. Nahi dena esango da, baina letra eta bertso estiloz, nik neuk ez duaukat berea den ala ez inolazko zalantzarik. Hain zuzen, bere beste kanta batzuetak agertzen diren klixek, errejistro, era edo molde, hor nabari dira garbi asko. Bestalde, erabiltzen duen euskara mota ere berbera da. Musikarena, musikologoez aztertu beharko dute, baina *Ume der bat eta Hara nun diran* egiteko gauza zenak ez zuen inongo eragotpenik *Gernikako arbolaren* doinua egiteko eta nork sinestuko du musikagintza beste baten esku utzi zezakeenik?

Gernikako arbola Euskal Herrian zehar kantatzeari eman zionean, hemen bai asaldatzen zituela bazterrak. Horregatik, preso sartu zuten, Frantzia Marsellesa kantatzeagatik gertatu zitzaion bezala, eta Tolosan epaitu ondorean deserriratu izan zen. Hortik sortu zuen beste honako kanta ezagun hau:

Zibilak esan dute
biziri egoki,
Tolosan bear dela
gauza au erabaki;
giltzapean sartu naute
poliki poliki,
negar egingo luke
nere amak baleki.

Gaztaroko kantok ditu bizienak, baina Ameriketatik itzultzean, bere etorreraz Hendaian kantatu zuena ere ez zen izan txarra:

Ara, nun diran mendi maiteak,
ara, nun diran zelaiak,
baserri eder zuri zuriak,
iturri eta ibaiak.
Hendaian nago zoraturikan,

zabal zabalik begiak;
ara, España, lur oberikan
ez da Europa guztian!
O! Euskal Erri, eder maitea,
ara emen zure semea,
bere lurrari muin ematera
beste gabe etorria.
Zuregatikan emango nuke
pozik bai nere bizia,
beti zuretzat, il arteraino,
gorputz ta arima guzia.

Nornahi ohartuko da naturaltasun handiz egindako bertsoak direla, eta diren bezala errespetatzea merezi dutela. Lehen bertsoan España kentzeko ohitura sartu da eta ez deritzat ondo egina, zeren garai hartako politikak bere kontestu berezia zuen eta aldaketak ez dio onik egiten argitasunari. Norbaitek esango du, nik neuk ere ortografia aldatu dudala, baina hau berez dator aldakor, harek eta euskara idatzi finkatu bat lortu arte. Horregatik, gaur inork ez bai du idazten Iparragirre berberak jarri zuen ortografiarekin. Baina, testu aldatzea beste gauza bat da. Oro Iparragirre, bere etorreran Bidasoako mugaren aurrez aurre agertu zela eta ibaiaren bestalde Estatu desberdin baten lurraldeak zirela eta horren barne bere sorterriaren parte. Beraz, garai hartan, gauzarik naturalena zen era hortan kantatzea.

Iparragirrek ordurako bazekien gauzak bereizten, gaurko askok baino hobeto. “Ley Paccionada” (1841) geroztik Nafarroa bereizten ari zen eta Gipuzkoako Batzar Nagusia Antzuolan biltzen zelarik, hara Jose Marik bidalitako bertsoak:

Esan, adiskideak
orduan bezala,
Nafarroakin gaur ere
anaiak general;
bat da gure izarra,
bat gure bandera:
esan beti Laurak bat
izan nai degula.